

IKASLEEN TXOKOA 89. ZENBAKIA

Lanbide heziketa

GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII



«Arrazakeria eta matxismoaren aurkako erreferentzia zentroa»

Hernaniko plaza feministak, 8 urte bete ditu, eta erronka berri baten aurrean daude. Orain, eraikin berri batera joateko proiektua martxan dago eta martxorako bertan egotea aurreikusi da.

**HERNANIKO
PLAZA FEMINISTA
BERRIA**

Plaza feminista abiapuntua izanik, Kulturarteko Plaza Feminista sortzea beharrezkoa ikusi da. Irantzu Jauregi Artolarekin bildu gara proiektu honi buruz solasteko.

Noiz eta nola sortu zen plaza feminista?

Udaletxeko berdintasun saila duela 20 urte sortu zen, aitzindari izan ginen Gipuzkoan, Arrasate eta Hernaniko Udalak izan bai ginen lehenengoak, berdintasun sail honen beharra ikusi zutenak. Honekin batera sortu zen berdintasun kontseilua. Kontseilu hau, herritarrek osatzen dute, beraien proposamenekin egingo dira ekintzak herrian.

Parte hartzeko organo hau praktikan erabakitzailea da. Eta Kontseilu honen eskaera izan da beti, espazio bat izatea herriko eragile feministek erabiltzeko. Horrela sortu zen Plaza Feminista 2012an.

Zer da kulturarteko plaza feminista?

Arrazakeria eta matxismoaren aurkako erreferentzia zentroa izatea du helburu. Ez dugu ezagutzen beste horrelako zentrorik, emakume etxeak eta berdintasun arloko erreferenteak bai, baina aipatutako bi gai hauek uztartzen dituen zentrorik ez.

Zergatik da beharrezkoa?

Herrian dauden hainbat eragile eta erakunde ezberdinek, espazio honen beharra dute, beraien materiala biltzeko, bilerak egiteko, tailerrak eta ekintza ezberdinak gauzatzeko.

Zein da helburu nagusia?

Beste gizarte berri bat sortzeko bidean, gaur egun dauden harreman botere horiek ez emateko edo gutxitzeko beharrezkoak diren ekintzen gauzatzailerik espazio bat ematea. Genero berdintasuna eta arrazakeriaren kontra egitea oinarri hartuta beti.

Nola egituratuta dago?

Udalaren teknikariok bertatik

lan egingo dugu, eta beti beza-la, eragileek espazioa beraien eskura izango dute. Herritarrei irekita, lankidetzan lantegiak, tailerrak, bilerak, hitzaldiak... egingo dira.

Zailtasunik izan al duzue covid-19 pandemia dela eta?

Bai, tailer eta ekintza konkretu batzuk aurrera jarraitu badute ere, beste batzuk, bertan behera gelditu dira. Adibidez, ahalduntze tailerreko partaideei online egiteko aukera eman zaie, baina beraien perfilarengatik, batzuk ezin izan dira gauzatu.

Eraso matxisten aurrean, plaza feministak, zer tresna ditu?

Hernanin, berdintasun sailetik protokolo bat ezarrita dago eraso aurre egiteko. Zerbitzu sozialak, anbulategia, udaltzaingoa eta Ertzaintzaren arteko koordinazioaz arduratzen da Berdintasun Saila. Protokoloak edo kartelak behin adostuak herriko hainbat lekuetan banatzen dira, esaterako, San Juanetan edo Txotx garaian, taberna eta txosnetan. Horrez gain, Koordinadora Feminista dago, eta bertan erasoen gaia lantzen duen lan talde bat dago. Erasoa jasan duten emakume guztiak ez dira administraziora zuzenean jotzen ausartzen, beraz, bestelako espazio seguruak ere sortzea interesgarria da.

Uste duzue hemendik hamar urteetara espazio hau beharrezkoa izango dela?

Bai, oraindik ere lan handia dago berdintasunaren bidean. Botere harremanak gizarte oso ezarrita daude, bai genero, arraza, klase sozial etab-en eraldaketan eragitea oso zaila da, baina ikusten da gazteak kontzienteago direla gaur egungo egoeraz, esaterako, etxean aplikatutako baloreak modu sakonean ulertzeko, gure kanpoko ingurua aztertu beharko dugu, behin hori eginda, dagoen errealitatearekin bat egingo dugu.

Egileak:

Uxue Iglesias, Eider Lucero, Naroa Aranguren, Olaia Zubillaga eta Garazi Sorzabalbere.





Geure buruak loratzen ikasiz: “LGTBIQ+ denok ezagutu beharreko errealitatea”

Gaur egun, XXI. mendean, transexualitatea, genero identitatea, transgeneroa, zisaraua, heteroaraua... bezalako kontzeptuak gero eta gertutasun handiagoarekin erabiltzen ditugu.

Apurka feminismoaren eta LGTBIQ+ mugimenduei esker, pausoak aurrera ematen ari gara gizarte bezala aipatutako kontzeptuak denen ahotan egon daitezela, naturalki erabili ditzagun eta erreferenteak sor daitezela datozen belaunaldiek aurrekoak baino bide samurrago izateko. Izan ere, pertsonak ez gara berdinak, eta garrantzitsua da pertsona bezala geure burua identifikatzen jakitea, dirudienez, izena duenak bakarrik baitu izana.

Loratuz Lotu proiektua, Lanbide Heziketa ikasten ari zirenean jaio zen, Mash eta Brayanen eskutik, enpresako klaseetan hain zuzen. Ez zeuden klase berean

baino antzeko proiektu bat zuten buruan eta elkartu egin ziren, bide emanez, pertsona transexual helduen elkarte bati. Mash eta Brayan transexualak dira eta haien trantsizioan nahiko galdurik ikusi zuten beraien burua. Xede horrekin, hain zuzen sortu zuten elkarte; pertsona transei babesa eta laguntza eman eta bakarrik ez daudela sentiaraztea. Proiektua aurrera atera eta LORATUZ LOTU elkarte sortu zuten.

Denborak aurrera egin ahala elkarte gorpuzta hartzen edo “loratzen” joan da, sare sozialean elkarriketak egiten dituzte, gai askotako bideoak ere sarean uzten dituzte denon eskura eta

hitzaldiak ere ematen dituzte.

Hain zuzen ere, 2020ko abenduaren 10ean Hernanira Lanbide Heziketako ikastetxera hurbildu ziren bisitan eta hitzaldi bat eskaini ziguten Animazio Sozio-kultural eta Turistikoko bigarren mailako ikasleoi. Eta nahiz eta denbora gutxi daramaten halako hitzaldiak ematen, ikasleoi berehala piztu ziguten gaiarekiko interesa. Izan ere, oso gertukoak azaldu zitzaizkigun hasieratik, irribarretsu eta elkarrenganako “feeling”a berehalakoa izan zen.

Gainera, halakoetan konturatzen gara zeinen gutxi daigun transexualitateari buruz eta nola gauden, nahiz eta saiatu kontrakoa egiten, benetan sartuta txikitatik erakutsi diguten eskema binario estu horretan, non emakumezkoak aludunak diren eta gizonezkoak zakildunak, eta pertsonak jaiotzez, zisgenero eta heterosexua-

lak direla pentsatzen dugun. Mash eta Brayan esker esan dezakegu pauso bat aurrera eman dugula zentzu horretan. Gainera, hitzaldia oso interaktiboa izan zen, galderak, hausnarketak edo komentarioak egiteko erraztasun guztiak eman baitzizkiguten.

Egia esan behar badugu eta ez da “Spoiler” bat egitearren, haien bizitza eta batez ere haien trantsizioa azaldu zigitenean izan zen kiribilaren kiribila. Gure aurrean irekitzeak erantzun positibo bat izan zuen guregan, zerbait piztu zitzaigun barruan. Gauzak hobeto egiteko nahia edo asmoa, agian.

Hitz gutxitan, hitzaldia oso arina eta aberasgarria izan zen, agian motz egin zitzaigun oso klima polita sortu zelako gure artean. Azkenik eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, hain ausartak izan eta geure buruak “loratzen” laguntzeagatik.

Egileak:
Zast3 ikasleak

Klababera

Klababera, kale-kultur alorrean tokiko mugimendu beharra sumatzen dugun pertsonak talde bat sortzea erabaki dugu.

Helburu bati bide emateko, arte eszenikoetan ibiltzen diren artistak eta aisia mugimendu hauetan bideratzen dituztenak, elkarrekin harremanetan jarri eta jarduerak sortzeari hasiera ematea.

Kontziente gera Covid-19 dela eta ekitaldiak eta zuzeneko jarduerak burutzea ez dela erraza izango. Hau kontuan izanda, ideiak jorratu eta pixkanaka jarduera hauek antolatu eta prestatzeko aukera ezin hobia dugula pentsatzen dugu.

Jarduera eta tailerrak sortzeko ideiak eta kooperazioak ongi-torriak dira, taldeak osatzen dihardu eta.

Ekitaldi hauetan musika eta malabar ezberdinak nahastu nahi ditugu. Publikoa malabar mundura gerturatu, eta lehenengo bizipenak izateko aukera eman nahi diogu. Tailer txikiak sortu e.a...

Idea hau bueltatzen lagundu nahi izanez gero, edo proposamenik baduzue posta bidez harremanetan jar zaitezke: klababera@gmail.com. Postaz aparte, laster Instagrameko kontua (@klababera) irekitzekotan gaude, egingo ditugun jarduerak dokumentatu eta zabaltzeko, animatu eta parte hartu arte eszenikoen mundu zoragarrian.

bera@gmail.com. Postaz aparte, laster Instagrameko kontua (@klababera) irekitzekotan gaude, egingo ditugun jarduerak dokumentatu eta zabaltzeko, animatu eta parte hartu arte eszenikoen mundu zoragarrian.

Egileak:

Aintzane Pagadizabal, Xabat Uralde eta Haritz Bilbao



Eguberri jasangarriak. Kontsumoa gaur egun

Eguberriei begira, kontsumitzaileak erosketak planifikatzen hasi dira.

Gabonak, diru gehien gastatzen den urteko garaia da, eta salmentak handitu egiten dira, bai oparietan baita egun nabarmenetako bazkari eta afariak ospatzeko janaria erosterakoan. Jendeak denboraldi honetan egiten dituen bidaiek kontsumoa igo egiten dute, familiari bisita egin eta eguberriak haiekin ospatzeko adibidez. Baina, Covid19ak eragindako egoera dela eta, bel-

dur handia du gizarteak, eta ez da beste urte batzuetan bezala izango. Gabonetan hainbeste diru inbertitu ordez, komertzio txikiek dituzten zailtasunei begira, haietan kontsumitzen lagun diezaiokegu.

Apaingarriei dagokienez, jasangarriagoa izango litzateke aurreko urtetan erabilitako objektuak berrerabiltzea, gutxiago kontsumitzeko. Honekin bate-

ra, haurrak dituzten etxetan, apaingarriak eskuz egin ditzakete.

Ez da urte erraza izan inorentzat, baina gure aldetik zerbait jartzen badugu, eguberri jasangarri batzuk izan ditzakegu.

Egileak:

Udane Aza, Nagore Roldan, Oihana Celihueta, Iraia Mendizabal eta Alba Blanco



Ilustrazioa

